

2015

BALANTZEA

Donostia Kulturak hiriko kultur katalizatzaile gisa jardun du hainbat arlotan 2015ean: liburutegietako eta kultur etxeetako zerbitzuak, gune eszenikoetako eta jaialdietako programazioa, San Telmo museoko eskaintza oparoa eta hiriko festa aukera zabala. Azpimarratzekoa da **Donostia Kulturako bazkide** kopurua: **90.125**, aurreko urtean baino **%7 gehiago**. **Sarrera salmenten** datu orokor batzuk ere lagungarri dira Donostia Kulturaren jardueraren tamaina ulertzeko, eta argi adierazten dute herrialdean sarrera gehien saltzen dituen erakundea dela. Izan ere, 2015ean **187.350 sarrera** saldu ziren Donostia Kulturaren ekimenetarako, 2014ean baino **%9,7 gehiago**. Sarrera salmentaren bidez Donostia Kulturak **2.262.733 euro** eskuratu zuen.

Donostia 2016 Kultur Hiriburutzaren atarikoia izan da 2015. urtean, eta horrek eragina izan du Donostia Kulturaren jardueran, izan ere, **hiriburutzarekin batera hainbat** eta hainbat **proiektu** landu dira. Gainera, kontuan izan behar da DSS2016EUtik eratorritako hainbat proiektu ondare gisa geratuko direla hirian (Olatu Talka, Beste Hitzak...) eta horietako batzuen ardurua Donostia Kulturak jada hartu du bere gain.

KULTUR ETXEETAKO JARDUEREN GORAKADA


Donostiako kultur etxeek auzoetako egunerokoan errotuta daudela eta hiritarrentzat erreferentzia eta elkargune direla. Guztira, **1.322.000** bisita baino gehiago izan zituzten kultur etxeek.

Datuak xehatzen hasita, **3.470** jarduera programatu zituzten kultur etxeek 2015. urtean eta jarduera horietan **319.000 lagunek** parte hartu zuten. 2014ko datuekin alderatuta nabarmen egin zuten gora; 400 jarduera gehiago burutu ziren eta horietan ia **54.000 lagun gehiagok** parte hartu zuten. Jarduera horien artean azpimarra daitezke 257 kontzertu, 221 hitzaldi, beste hainbeste bideo emanaldi eta 106 erakusketa.

Ikastaroei dagokionez, **913 ikastaro** egin ziren 2015ean, aurreko urtean baino 100 gehiago, eta horietan 8.000 lagun baino gehiagok hartu zuten parte eta emakumeak gehiengo; **4 parte-hartzailetik 3 emakumeak** izan baitziren.

Zerbitzuei dagokionez, aipamen berezia merezi du Musikagelak. Izan ere, Egia Kultur Etxean hasitako **Musikagela** zerbitzua **Intxaurrendora iritsi zen** 2015ean, eta beraz, bertako taldeek musika lokalak eskuragarri dituzte ordutegi zabalean. Bost gela intsonorizatu ziren, eta noiz behinkako taldeek zein talde erresidenteek jotzeko aukera dute.

Donostiarrak	70.585	78,32%
Ez donostiarrak	19.540	21,68%
GUZTIRA	90.125	



Bazkide kopurua 2015 bukaeran

E-LIBURUTEGIA IRITSI DA LIBURUTEGI SARERA

Liburutegien kasuan azpimarratzekoa da erabiltzaileen arloan 2014ko emaitza bikainak errepikatu zirela 2015ean: 1.077.559 bisitaldi eta 538.299 mailegu egin ziren guztira. Maileguen kasuan, batez bestekoa, **2,93 mailegu** biztanleko izan da eta datu horrek esan nahi du **Europaren pare** gabiltzala (3-4 mailegu biztanleko).

Donostiako liburutegien sarearen kasuan nabarmentzekoa da erabiltzaileen eskaera berrietara egokitzen jarraitzen duela eta 2015eko uztailetik aurrera, **zerbitzu berri bat** eskaintzen dela: **e-liburutegia**, liburu digitalak mailegatzeko zerbitzua. Uztailetik, **2.966 mailegu** digital egin ziren eta argi geratu da zerbitzu berri horrek interes handia piztu duela herritarren artean. Horrez gain, azpimarratzekoa da **Alderdi Ederreko** liburutegiko **autoikaskuntzarako zerbitzu berria**: bost ordenagailu berri, lineako prestakuntzarako oso-osorik.

Jardueren arloari dagokionez, liburutegiek antolatutako **jarduerak arrakasta** handia izan dute, eta 2014ean baino **5.000 lagun gehiagok** parte hartu dute horietan. Azpimarratzekoak Liburuaren Egunaren harira antolatutakoak; Liburutegien Egunean liburutegien betekizun sozialaz aritzeko antolatutako ekimenak; Emakume Idazleen XXVIII. Literatur Topaketa eta *Poesia eta Pentsamendua* jardunaldiak.

PROGRAMAZIOA

Antzerki eta dantza arloan, Donostia Kulturak **400 funtzio** baino gehiago programatu zituen guztira, eta **93.609 ikusle** baino gehiago bildu zituzten. **Dantza** arloan Kubako Ballet Nazionalaren **Beltxargen aintzira**; Antonio Gadesen konpainiaren **Fuego** eta Blanca Liren **Robot** aipa daitezke. Antzerki arloan, neguko programazioan, berriz, **Kathy y el hipopótamo** antzerki-lana nabarmendu zen eta Roberto **Álamok** eta Sergio Peris-Menchetak antzeppen bikaina oparitu ziguten Keith Huff-en **Lluvia constante**. Donostiako udak espero zen bezala erantzun zuen: Goyo Jiménez, Asier Etxeandia, Carlos Latre, Concha Velasco, Pepón Nieto, Carlos Sobera, Lolita Flores, Verónica Forqué aritu ziren.

Saririk garrantzitsuena, **Donostia Antzerki Saria**, euskarazko antzerki-lanen artean ematekoa, Dejabu Panpin Laborategia antzerki-kolektiboaren **Arrastoak** ikuskizunari eman zitzaion.

Egiako Gazteszenak ere aipamen berezia merezi du, azpimarratzekoa baita euskal antzerkigintzak izandako arrakasta: **Gau Arabiarra, Putinen Guardasola eta Etxekoak** bezalako antzezlanekin.

Musika programazioari dagokionez, Victoria Eugenia Antzokiaren kasuan hauek dira izen aipagarrietako batzuk: 2015eko izen esanguratsuetako batzuk: **Pablo Milanés, Leiva, Revolver, Ismael Serrano, Dire Straits tribute**



El lago de los cisnes



Dejabu Panpin Laborategiaren *Arrastoak* lanak irabazi zuen Donostia Antzerki Saria

band: Brothers in Band eta **The Musical Box Project Genesis: Selling England by the pound** ikuskizunarekin. Euskal musikaren atalean, **Oskorri Hauxe da despedidea** kontzertuarekin; **Ruper Ordorika; Kukai Adiskideak** musika-ikuskizunarekin; **Izaki Gardenak; Skasti; Naroa** eta **Olatz Zugasti**, besteak beste. Nabarmentzekoak, halaber, **Jaso Ikastolaren Invoc4tion** musikala eta bigarren **Adarra Saria; Ruper Ordorika** musikariaren ibilbidea saritu zuena.

2015ean, 100 urte bete ziren **Jose Maria Usandizaga** hil zenetik, eta, horren harira, programa bat egin zen, era askotako jarduerekin, eta Victoria Eugenia Antzokiak jarduera horietako zenbait hartu zituen; besteak beste, **Las Golondrinas** opera.

Antzoki Zaharrean, berriz, zazpi musika-emankizun eskaini ziren, artista nabarmenenak: **Amancio Prada, Elliot Murphy, Mikel Urdangarin**, eta **Al Turaz Al Andalusí: Siria Kulturalan** izeneko kontzertua.

Intxaurrondori dagokionez, 28 kontzertu izan ziren eta 8.600 ikusle, eta horien artean azpimarratu behar da Berri Txarrak taldeak lau egunetan eskaini zuela kontzertua eta sarrera guztiak berehala agortu zirela.

Lugaritzen 16 musika emaldi eta 3.700 ikusle izan ziren: **Jabier Muguruza, Mikel Azpiroz, Mikel Urdangarin** eta **Musikene Big Bandek** eskainitako kontzertuetan, besteak beste.

Zinema arloan, irailean Tabakalera kulturgunea ireki zenean, agerian geratu zen Donostia Kultura herritarrentzat programazio-mahai bakar batean egiten ari den lana, Tabakalarekin, Euskadiko Filmategiarekin eta Nazioarteko Zinemaldiarekin. Lehen emaitza Nosferatu zikloa aretoz aldatzea izan zen, urritik aurrera, tabako-fabrika ohiko zine-aretoa pasatu baitzen. Lehen ziklo hori **Krzystof Kieslowski** poloniar zinegileari eskaini zitzaion. Ohiko elkarlanean antolatutako jaialdi eta ekimenez gain, azpimarra daiteke **Bang Bang Donostia** proiektioak sendotu egin direla, bi hilez behingo emanaldiekin, eta emanaldi berezi gisa, **Euskararen gutxienekoak** eta **Sagardoa bidegile** euskal dokumentalen aurkezpenak izan ziren. Azpimarratzekoa ere **DSS2016rekin batera** egindako lana, hainbat programa garrantzitsu abian jarri edo indartu baitziren 2015ean: esaterako, antzerki arloko **Mugalariak** programa eta literatura arloko **Beste Hitzak / Other Words**.



Ruper Ordorikak Adarra Saria jaso zuen



Jabier Muguruza



Nosferatu programako Krzystof Kieslowskiren zikloko *Azul* filma

SAN TELMO MUSEOA

2015. urtea esperientziaz eta proposamenez beteriko urtea izan zen San Telmo Museoa, eta bisitarien babesa argi ageri da kopuruetan: 2015ean, San Telmo Museoak eta Urgulleko erakusketak 261.880 bisitari izan zituzten.

San Telmo Museoaren betekizun nagusiak honako hauek izan dira: ondarearen zaintza eta zabalkundea; artea, zinea, argazkiak, bideoa, musika eta mendiari buruzko lagin bat erakusketen programan; eztabaidarako eta pentsamendurako jarduerak, bai eta beste proposamen batzuk ere, non belaunaldi desberdinek sorkuntza- eta arte-esperientziak eta esperientzia ludikoak partekatu baitzituzten; eskaintza didaktiko zabala eta bertatik bertarako lana ikastetxeekin; harremanak instituzioekin eta gure inguruko kultur eragileekin... Erakusketen artean aipa daitezke, besteak beste, **Mendia; Pasolini Roma; Elías, vida mía; Ikimilikiliklik. JA Artzeren unibertsoa.**

Donostia Kulturako **beste erakusketa aretoei** dagokionez, eskaintza ez garrantzitsua izan: **Surf, Civilización y Barbarie** (Okendo K.E.), **Iberia FX** (Okendo K.E.), **Nazien presentzia Bidasoan** (Aiete K.E.), **Saharako ahotsa, ahanzturaren kontrako erresistentzia** (Aiete K.E.), **Star Wars Aiete** (Aiete K.E.)

HEINEKEN JAZZALDIAREN 50. URTEURREN BOROBILA

Jaialdiei dagokienez, zalantzarik gabe aipamen berezia merezi du **50. Heineken Jazzaldiak**. Urteurren borobilean zifra borobilak lortu zituen: uztailaren 22a eta 26a bitartean, **124.000 pertsona** baino gehiago gerturatu ziren 17 agertokietan programatutako emanaldietara. Baina zifretatik harago, azpimarratzekoa artisten kalitatea: **Jamie Cullumek** aipamen berezia merezi du bere hiru agerraldietan (Agertoki Berdean DJ gisa, Kursaal Auditorioan bakarlari moduan, eta Trinitate Plazan, big band baten buru) eta baita Trinitate Plazan aritu ziren emakume abeslari guztiek; **Sílvia Pérez Cruz, Zaz** eta **Dee Dee Bridgewater**, esaterako.

DonostiKluba Jaialdia ere aipatu behar, **10 urte** bete baitzituen 2015ean, eta **13.000 lagun** baino gehiagok gozatu baitzuten bertako emanaldiekin.

Ezin ahaztu gainerako jaialdiak ere: **XXVI. Fantasiako eta Beldurrezko Zinemaren Astea, XXI. dferia, XIII. Giza Eskubideen Zinemaldia, Literaktum, Poltsiko Antzerkia, XIII. Surfilm Festival**



Pasolini Roma



San Telmo Museoko **Ikimilikiliklik, JA Artzeren unibertsoa** erakusketa



Sílvia Pérez Cruz Heineken Jazzaldian

FESTAK

Festen arloari dagokionez, urtero bezala, Donostiako festa ekitaldi gehienetan antolatzaile, bultzatzaile edo laguntzaile izan da Festak unitatea, eta 100 jarduera baino gehiagotan parte hartu du, elkarte eta bestelako erakundeekin elkarlanean, urte osoan zehar hirian izan diren festa nagusien motorra izanik: danborrada, Kaldereroak, Santa Ageda, Inauteriak, Aste Nagusia edo Santo Tomas.

2015ean, gainera, Festak sailak lan berezia egin du kalean jarduerak egin ahal izateko baimenak lortzerako orduan udal kultura berri bat ezartzeko, herritarrek erraztasunak izan ditzaten baimenak eskatzeko eta eskuratzeko.



Kaldereroak

KOMUNIKAZIOA

Eta hau guztia gizarteratzen eta ezagutarazten lan egin du Donostia Kulturako Komunikazio eta Irudi Departamentuak. Prentsa kabinetearen bidez Donostia Kulturaren beharrei aurre egin zaie, ekimen ugariaren bidez: 176 prentsaurreko; gaikako 235 dossier; 260 eskuorri; bazkideentzat 70 e-buletin....Gainera, 2015ean sarean egindako lana azpimarratu beharra dago, alde batetik, sare sozial ezberdinak indartuz eta bestetik, webgunean indartuz, eta horrek emaitzak eman ditu: 1.045.888 bisita izan zituen donostiakultura.com-ek; lehenengo aldiz milioi bat bisita gaindituz.